irun
Aprobado por la Alcaldía
Presidencia por resolución Nº 922
de Fecha 22/7/2022
Irun, 22/7/2022
Idazkaria / La Secretaria
IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

"EUSKARALDIA" IZENEKO EKIMENAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA ETA DINAMIZAZIOA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- PROZEDURA ABIATU DUEN ARLOA

Irungo Udaleko Euskara Arloa

2.- KONTRATUAREN XEDEA

"EUSKARALDIA" ekimenaren koordinazio, idazkaritza teknikoa eta dinamizazio lanak.

3.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena enpresa esleipendunari hautatua izan dela jakinarazten zaion egunaren biharamunetik 36 hilabetekoa izango da.

4.- KONTRATUAREN OINARRIAK

EUSKARALDIA euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Beste era batera esanda, EUSKARALDIAREN helburua hizkuntza ohiturak aldatuz euskararen erabilera handitzea da, gutxieneko baldintza euskara ulertzea izanik. Helduen aktibazioa du giltzarri.

EUSKARALDIARI buruz ari garenean, ariketaz gain aurreko eta osteko prozesu osoa hartu behar da kontuan.

EUSKARALDIAK norbanakoen zein entitateen urratsak sustatu nahi ditu. Oinarriak hauek dira:

a) EUSKARALDIA norbanakoen eta entitateen hizkuntza praktika berriak bultzatzeko ekimena izango da, belarriprest eta ahobizi dinamikan oinarrituko dena, hau da, euskara dakitenek ulertzen duten guztiekin euskarari eustea, eta ulertzen dutenek kideei beraiekin euskaraz egiteko eskatzea da mekanika.

b) Herritarrak eta mota guztietako entitateak (erakunde publikoak, enpresa pribatuak, elkarte txiki zein handiak, eta abar) izango dira parte hartzaile.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARÍA AYUNTAMIENTO DE IRUN

c) Egoeretara moldagarria izango da.

d) 2022an ariketa soziala azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean izango da eta, beraz, 15 eguneko iraupena izango du. Hurrengo edizioan (2024koa) zehazten den egutegiaren arabera antolatuko da ariketa soziala.

5.- PROGRAMAREN HELBURUAK

5.1.- HELBURU OROKORRA

EUSKARALDIA ekimenak helburu zehatza dauka: **Irungo euskaltzale helduak eta entitateak** (erakunde publikoak, enpresa pribatuak, elkarte txiki zein handiak, eta abar) **aktibatzea eta prestatzea, beren eguneroko harremanetan euskaraz aritu daitezen ulertzen duten herritar guztiekin.** Horretarako, 2022an eta 2024an hamabost eguneko ekimena gauzatzea proposatzen da, **2022koa azaroaren 18tik abenduaren 2ra. Hurrengo edizioan zehazten den egutegiaren arabera antolatuko da ariketa soziala.**

Bi parte hartzaile mota egongo dira:

- **Ahobiziak** euskaraz egingo die belarriprestei eta ulertzeko gai diren guztiei, hauek erdaraz erantzun arren. Era berean, ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo die. Identifikatzeko txapa izango du. Hau izango da bere jokamoldea: ""Euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean."

- **Belarriprest** denak, dakienari berarekin euskaraz aritzeko gonbitea egingo dio, berak euskaraz zein erdaraz erantzun arren. Identifikaziorako txapa izango du, ahobiziek belarriprest dela jakin dezaten. Hau izango da bere jokamoldea: " "Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan".

EUSKARALDIA bi planotan garatuko da:

- Irunen. Erronka bikoitza izango da.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Pertsonak aktibatzea. Ahalik eta pertsona gehien euskara gehiago erabiltzera animatuko duen ekimena aktibatzea Irunen.

Irungo entitateak aktibatzea. Alde batetik, entitate bakoitzaren eremuan ahalik eta pertsona gehien parte hartzera animatu daitezen (hau da, ekimenaren zabalkundean lagunduko duten sustatzaile izan daitezen); bestetik, entitateek pertsona horien hizkuntza praktikak erraztuko dituzten neurriak har ditzaten.

5.2. HELBURU OROKORRAK

Euskaraldiaren edizio berri honetarako bi helburu nagusi zehaztu dira.

Euskaraldian parte harzten duten norbanako eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak ematea.

Parte hartzea hedatzea: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea. Batez ere ariguneak dira gako honetan: entitateetan ariketa modu kolektiboan egiteaz gain, herritar multzo berrietara heltzeko eraginkorrak dira.

Aurretik aipatutako helburuak betetzeko, honakoak dira 2022 edizioko azpi helburuak:

- Belarriprest eta Ahobiziak eragile aktibo izatea.
- Parte hartzaileek lorpen berriak eskuratzea eta hauek ikusaraztea.
- Ahobizi, belarriprest eta arigune kontzeptuak hedatzen jarraitzea eta hauetako bakoitza indartzea. Entitateetan ariguneak hedatzea.
- Ariketa bistaratzea, ikusgarri egitea. Txapen eta arigune identifikagarrien erabilera indartuta eta, aldi berean, kale presentzia areagotuta.
- Batzordeak indartzen jarraitzea lankidetzan arituta eragile sozial eta instituzionalak, zein herritar euskaltzaleak.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARÍA AYUNTAMIENTO DE IRUN

5.3. HELBURU ZEHATZAK

Ondorengoak dira III. EUSKARALDIAREN (2022koa) helburu zehatzak Irun herrirako:

- Irunen, Euskaraldian parte hartzen duten norbanako eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak ematea. Hau da, ariketaren portaeretan sakontzea eta erabileran jauzi kualitatiboa ematea. Hau da, hizkuntza-ohiturei astindu bat ematea eta Irunen ahalik eta pertsona gehienek **euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea.**

- Parte hartzea hedatzea: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea. Batez ere ariguneak dira gako honetan: entitateetan ariketa modu kolektiboan egiteaz gain, herritar multzo berrietara heltzeko eraginkorrak dira. Era guztietako **entitateetan** euskaraz bizitzea ahalbidetuko duten **babes neurriak hartzea. Horretarako, nahi duten entitateek ekimena beraren sustapena egingo dute, entitateko ulermenaren diagnosia eta belarriprest eremuen identifikazioa eta bultzada, igarobideak sustatuz.**

- Ekimenetik abiatuta emango diren **urrats berriak** eta sortuko diren euskarazko harremanak, **ekimenaren ostean mantentzea**.

5.3. HELBURU ZEHATZAK IRUNEN

Ondoren datorren grafikoan ikus daiteke 2020an %39 jaitsi zela parte-hartzea. Jaitsiera hori azpimarragarria da Belarriprest rola aukeratzen dutenen artean, izan ere %50 baino gehiago jaitsi zen haien parte-hartzea.

	2018	2020	Aldea
Ahobizi	2.560 *% 71*	1.698 *% 79*	
Belarriprest	1.048 *% 29*	500 *% 21*	
Guztira	3.608 *% 100*	2.198 *% 100*	*1.410* *-%39*

Gainera, bai 2018an eta bai 2020an, gizonezkoen parte-hartzea ia %50 txikiagoa da emakumezkoena baino, ondorengo grafikoan ikusten den bezala.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Sexuari jarraiki

	2018	2020	Aldea
Emakumeak	2.244 % 62,2	1.402 % 64	1.042 -%46
Gizonak	1.340 % 37,1	770 % 35	570 -%42
Ez-binarioak	24 % 0,7	26 % 1	2 +%8
Guztira	3.608 %100	2.198 % 100	1.410 -%39

Adinari dagokionez, 40 eta 64 urte bitarteko adin-tartea izan da aktiboena 2018ko ekitaldian eta, 2020 urtean, gainerako adin-tarteen oso gainetik, jarraian ikusten den bezala.

Adinari jarraiki

	2018	2020	Aldea
16-24	548 *% 15,2*	217 *% 9,8*	331 *-% 60,4*
25-39	1.040 *% 28,8*	705 *% 32,1*	335 *-% 32,2*
40-64	1.774 *% 49,2*	1.134 *% 51,6*	640 *-% 36*
+65	246 *% 6,8*	121 *% 5,5*	125 *-% 50,8*
Zehaztu gabe		22 *% 1*	
Guztira	3.608 *% 100*	2.198 *% 100*	1.410 *-% 39*

Datu horietatik abiatuz, EUSKARALDIko Herritarren Batzordeak nahiz talde eragileak, besteak beste, ondorengo helburuak markatu zituzten 2022 urterako:

- Euskaraldia ariketa gizarteratzea, oraindik iritsi gabeko populazio-segmentuetara iristeko; adibidez, euskaltzaleen segmentutik urrun egon direlako edo eten digitalaren eraginagatik.

IRUNGO UDALA PAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

- Irunen BELARRIPREST izan daitezkeen pertsonen parte-hartzea handitzea ariketa honetan.

- Gizonezkoek bai AHOBIZI eta bai BELARRIPREST roletan duten parte-hartzea handitzea.

- Ariketa zabaldu eta adin-tarte gehiagotara iristea bai AHOBIZI eta bai BELARRIPREST roletan.

Beraz, Irunen, 2021. urtean egindako hausnarketatik hauek eratorri ziren:

- Euskaraldia ikusgarriagoa egitea kalean: "kalea berreskuratzea".
- Gazteak, belarriprestak eta gizonezkoak erakartzea.
- Entitateetan lanketa sakonagoa egitea, kide gehiagorengana iristeko.

➢ Horretarako, 2022an:
- Egutegi orokorra herrira egokitu beharko da.
- Entitateekin lanketari helduko zaio; hasteko, aurreko edizioan parte hartu zuten batzuekin.
- Hiritarrak aktibatzeko, eta bereziki belarriprestak aktibatzeko ekintza zehatzak diseinatzeari ekingo zaio.

6.- KONTRATATZEN DEN ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Enpresa esleipendunak, *III. eta IV. EUSKARALDIA* egitasmoak aurrera eramango ditu Irungo udalarekin elkarlanean.

Hori egiteko lau lan ardatz jorratuko ditu:

- EUSKARALDIA BATZORDEAREN BERRAKTIBAZIOA
- KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIO LAN OROKORRAK
- HERRITARREN AKTIBAZIOA
- ENTITATEEN AKTIBAZIOA
- EUSKARALDIA ARIKETA SOZIALA BERA

Enpresa esleipendunak *EUSKARALDIA batzordearen* antolaketarako estrategiak landu eta ekintzak bideratuko ditu. Orain arte bezala *EUSKARALDIA Batzordeak* EUSKARALDIAren gaineko funtsezko erabakiak hartuko ditu. *EUSKARALDIA Batzordea* 2020ko ebaluaziotik abiatuta proposatutako planifikazioa egingo da goiko helburuak aintzat hartuz. Beste, horrenbeste 2022ko edizioan. Enpresa esleipendunaren lana izango da *EUSKARALDIA Batzordea* eta bertatik sortutako lan-talde eragilea dinamizatzea. Lan-taldea *EUSKARALDIA Batzordeak* hartutako erabakiak bideratuko dituen taldea da.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

III. eta IV. EUSKARALDIA egitasmoen koordinazio, idazkaritza teknikoa eta dinamizazio lanak egingo ditu enpresa esleipendunak. Horretarako, dinamizazio lan hauek bideratuko ditu:

- Irungo euskaltzaleak martxan dagoen *EUSKARALDIA batzordean* saretzeko proposamen bat diseinatuko du Euskara Arloko teknikariekin. Horretarako, ikastetxeetako euskara arduradunekin, euskaltegietakoekin, elkarteekin, Euskara Arloko aditu paneleko pertsonekin eta interesa duen norbanakoekin...harremanetan jarriko da. Ikastetxe, euskaltegi eta elkarteei guraso-bazkide-ikasleen artean deia zabaltzeko eskatuko die. Behar beharrezkoa izango da gogorarazteko gutun formalez gain agente guztiekin jarraipen telefonikoa egitea. Parte hartu nahi duten hiritarrekin EUSKARALDIAren erdigunean egongo den taldea izango den *EUSKARALDIA batzordea* elikatuko da. Batzordea hilabetean behin bilduko da.

- Irungo Udala, *EUSKARALDIA Batzordea* eta enpresa esleipendunak egitasmoa dinamizatzeko jartzen duen/dituen giza baliabideak ekimenaren nukleoa izango dira Irunen eta haiekin bilerak antolatzea, dinamikak eta ekimenak zehaztea egokituko zaio enpresari. Bere lana izango da, halaber, talde honen idazkaritza lanak egitea: aktak, deiak... Behin EUSKARALDIA Batzordea behar bezala konpaktatua dagoenean enpresa esleipenduneko dinamizatzaileak Irungo *EUSKARALDIA lan-taldea* berrabiaraziko du, Batzordeak hartutako erabakiak modu operatiboan egikaritzeko. Lan-taldearekin bilerak antolatzea, dinamikak eta ekimenak zehaztea egokituko zaio enpresari. Bere lana izango da, halaber, talde honen idazkaritza lanak egitea: aktak, deiak... Edozein kasutan Irunen III. eta IV. EUSKARALDIA bideratzeko sortutako egiturarekin lan egingo du enpresa esleipendunak, Irungo udalarekin elkarlanean.

- Enpresa esleipendunaren lana izango da, halaber, *EUSKARALDIA Batzordeko* kideen funtzio banaketa zehaztea hasiera hasieratik eta udalak zedarritutako ekimenaren marko komuna defendatzea. Batzordearekin batera herriko plangintza zehaztu eta kronogramara eramango du enpresa esleipendunak egitasmoa koordinatzeko, dinamizatzeko jartzen duen/dituen giza baliabideak, Irungo Udalarekin elkarlanean (ekintzak, komunikazioa...). Batzordearen baitako harremanak zainduko ditu, egitasmoaren helburuak elikatzeko. Elkarteen edo entitateen harreman sareak eta komunikazio bideak proposamenaren berri emateko eta herritarrak ilusionatzeko baliatuko ditu.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARÍA AYUNTAMIENTO DE IRUN

- Enpresa esleipendunak jarritako giza baliabideak ekimenaren sozializazioan parte hartuko dute, prentsaurrekoetan, elkarrizketetan eta abar...beste agenteekin batera.

- Irungo entitateen mapa berregingo du, egoera ezagutu eta norengana jo zehazteko.

- Enpresaren lana izango da, halaber, *EUSKARALDIA Batzordea* eta bere lan-taldeari entitateekin egin beharreko lanaren inguruko prestakuntza eskaintzea entitateek ekimena beraren sustapena egin dezaten, entitateetako ulermenaren diagnosia egin ahal izateko eta belarriprest eremuen identifikazioa egin eta bultzada emateko.

- Egitasmoaren aurkezpen publikoak antolatu eta aurrera eramango ditu enpresa esleipendunak, hirian entitate gisa EUSKARALDIAN parte hartzea erabakitzen dutenekin. Aintzat hartuko dira datozen bi edizioetan auzoak edo sektore ezberdinak (erakunde publikoak, enpresa pribatuak, elkarte txiki zein handiak). Zeregin honetan Irungo Udalak Irungo elkarteen artean sustatzen duen KALEAN BAI Planean parte hartzen duten entitateak aintzat hartuko dira, lehentasunez.

- Enpresa esleipendunak, *EUSKARALDIA Batzordea* eta bere lan-taldearen laguntzarekin, entitateen izenematea kudeatuko du.

- Enpresa esleipendunak, *EUSKARALDIA Batzordea* eta bere lan-taldearen laguntzarekin, izena eman duten entitateetan ulermena zenbatekoa den jakiteko diagnostikoak bideratuko ditu.

- Enpresa esleipendunak, *EUSKARALDIA Batzordea* eta bere lan-taldearen laguntzarekin, herritarren izen-ematea kudeatuko du, parte hartzaileentzako aholkuak zabalduz (belarriprest/ahobizi), tailerrak emanez eta ekintzarako materiala banatuz (txapak). Materiala Irungo Udalak eskuratuko dio. Ez hori bakarrik, izena emateko modua eta tokia zehaztuko du Irungo Udalarekin elkarlanean.

- Ekimena lurralde historikoko edo beste lurralde batzuetako gainerako talde eragileekin koordinatuko du eta informazioa erraztu eta bermatuko du. Hau da, kontratuaren iraupen-aldian egitasmo honetarako enpresa esleipendunak jarritako giza baliabideak eta Irungo *EUSKARALDIA Batzordea* eta bere lan-taldea ekimen orokorreko koordinatzaileekin harremanetan egongo dira, bi norabidetako komunikazio bideak baliatuta (emaila, intraneta, foroa, lurraldekako bilera puntualak). Ekimen orokorreko koordinatzaileekin adostuko du enpresa esleipendunak, bestalde, material logistika eta, gainerakoak.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

- 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean EUSKARALDIA ekimena bera (ariketa soziala) koordinatuko du enpresa esleipendunak, Irungo udalarekin eta Batzorde/lan-taldearekin batera, behar bezala garatzeko beharrezko neurri zuzentzaileak hartuz. Hau da, enpresak (eta aipatu eragileek) egitasmoan herritarren eta entitateen parte hartzea antolatu eta koordinatuko du. Hurrengo edizioan, beste horrenbeste egingo du zehaztutako daten arabera.

- EUSKARALDIAren edizio bakoitza bukatu eta gero enpresaren lana izango da balorazioa egitea eta aurrera begira jartzea. Egindako ibilbidea modu kritikoan aztertu eta gero beste bide batzuk jorratzeari ekingo zaion edo ez ebaluatuz.

7.- LAN EGUTEGIA

Behin esleipena eginda, bilera bat deituko da enpresa esleipendunaren eta Euskara Arloaren artean, honako hauek zehazteko:

- Egitasmoaren alderdi teknikoak

- Enpresa esleipendunaren eta Euskara Arloaren artean Programaren jarraipena eta ebaluaziorako bileren egutegia.

- Lan metodologia, zereginen banaketa, taldearen/taldeen koordinazioa...

Kontratua egitean aurreikusi egin beharko dira enpresa esleipendunaren eta Euskara Arloaren artean programa jarraitu eta ebaluatzeko egin behar izango diren bilerak. Ez dira, alta, hilean behin baino gutxiago izango.

Hau da, proposatzen den lan-egutegi markoa. 2022an irailetik (9 zenbakiarekin markatua kronograman) aurrerakoak enpresa esleipendunak bideratu beharko dituen lanak izango dira eta lan hauek, gutxienez, egingo ditu, halaber 2024ko IV. EUSKARALDIAN.

Dena den, lan-egutegi zehatzago bat biltzen duen exekuzio-plana emango zaio enpresa esleipendunari, xehe-mehe zehaztuz kontratazioaren epealdian egin beharrekoekin.

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

EGITEKOAK	Hilabetea											
EUSKARALDIA BATZORDEAREN BERRAKTIBAZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Herri Batzordea berraktibatu eta osatu												
Irunek Euskaraldia antolatuko duela baieztatu												
Herriko Plangintza egin eta baliabideak zehaztu												
Euskaraldia Batzordearen lana gizarteratzea												
KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIO LAN OROKORRAK												
Korrika amaituta EUSKARALDIAren presentzia mediatikoa handitu												
Pedagogia lana entitate eta herritarrekin												
Hedabideekin koordinazioa												
Publizitate kanpaina hedabideetan												
Merchaindaisingaren zabalkundea												
Txapa kopuruak zehaztu												

EGITEKOAK	Hilabetea											
HERRITARREN AKTIBAZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
"Euskaraldiari esker lortu nuen" kale ekintza herrietan												
Muralen pintaketa herrietan												
Zuzeneko komunikazioa parte-hartzaileekin (mailing, sms...)												
Kantaren zabalkundea												
Udako girotze ekintzak herrietan												
Euskaraldia kalean (ikusgarritasuna): mahaiak, ekintzak, banderolak...												
Belarriprestei zuzendutako kanpaina												
Udazkeneko kultur pilulak herrietan												
"Euskaraldia honetan lortu nahi dut/dugu" ekintzak herrietan (herritar eta entitateei zuzendutako ekintzak)												
Belarriprest eta ahobizien izen ematea												
Belarriprest eta ahobizien prestakuntza												
Txapa banaketa parte hartzaileen artean												
Parte hartzaileei ariketarako aholku praktikoak banatu												



EGITEKOAK	Hilabetea											
ENTITATEEN AKTIBAZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Entitateen alorrean lehentasunak zehaztu												
Entitate handiei aurkezpenak edo eta gonbidapenak egin												
Ariguneak osatzen dituzten entitateen izen ematea												
Entitateen praktika eredugarrien identifikazioa eta gizarteratzea												
Entitate txikiei aurkezpenak edo eta gonbidapenak egin												
Arigune identifikagarrien banaketa												
Entitateei ariketarako aholku praktikoak banatu												
III. EUSKARALDIA ARIKETA SOZIALA (AZAROAREN 18TIK ABENDUAREN 2RA)												
15 egunetako tentsio komunikatiboari eusteko lanak												
Balorazioa												
Euskararen Nazioarteko Eguna												



8.- EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BERMATZEKO NEURRIAK

Lizitatzaileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatuko dituzte. Ildo horretatik, honako irizpideak kontuan hartu beharko dira:

- Hizkuntzen erabilera ez-sexista egitea ahoz nahiz idatziz emandako mezuetan.

- Kontratua burutzerakoan erabiliko diren irudietan emakume eta gizonen presentzia orekatu eta ez-estereotipatua bermatzea.

- Hezkidetza sustatuko duten materialak erabiltzea

9.- HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA

Lanak burutuko dituzten langile guztiek, honako euskara maila dutela egiaztatu beharko dute: C1. Derrigorrezkoa izango da euskara maila hori egiaztatzea.

Enpresa, batzordea, lan-taldea eta udalaren arteko lan-hizkuntza euskara izango da, maila guztietan (ahozkoa, idatzikoa, prestakuntzakoa,...); beraz, enpresa esleipendunak baldintza hau betetzeko bermeak eskaini beharko ditu.

10.- GARDENTASUNA

Irungo Udalak 'kristalezko hormak' dituen erakunde publiko izateko konpromisoa hartua du herritarren aurrean, horretarako Udal Gardentasunaren proiektua garatuz; proiektu horren barruan sartu dira Jokabidearen, Gobernu Egokiaren eta Kalitate Instituzionalaren Kodea onartzea, administrazio politika erabat gardena egitea, eta informazio publikoa lortzen laguntzen duten tresnak martxan jartzea.

Marko horretan eta kontratazio honi dagokionean enpresa esleipendunak erabiltzaileentzako eta kontratatu behar dituen langileentzako interes handienekoa den kudeaketako informazio guztiaren berri eman beharko du, eskuragarri eta zuzenean eskaini informazio hori horretarako laguntzen duten tresnak martxan jarriz.

Erabiltzaileei begira momentu oro identifikatuko dira izen-abizenez enpresa esleipenduneko enplegatuak.

11.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDURAKO HITZARMENA

Kontratu honen xede diren lanak burutzearen ondorioz kontratuaren esleipendunak udalaren titularitateko fitxategietan dauden izaera pertsonaleko datuak lortu beharra dagoenez, eskuratze hori Izaera Pertsonaleko Datuak 3/2018 Lege Organikoaren esaten dena errespetatzeko, esleipendunak datuen tratamendua arautzen duen hitzarmen arautzailea sinatu beharko du.

Hitzarmen horretan esleipendunaren datuen tratamendua fitxategiaren arduradunaren instrukzioen arabera egiteko konpromisoa jasoko da, eta aldi berean, erabiliko diren datuak ez dira erabiliko kontratazioak xedea duen beste helburu baterako ezta datu horien berri emango hirugarrenei ere. Era berean, sinatuko den hitzarmenean garbi adieraziko dira zein neurri erabiliko dituen esleipendunak datuen tratamendua egoki egiteko.

12.- INGURUMENAREN ALORREAN ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa dela ikusten denean, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Ahal den neurrian formularioen kopurua murriztuko da, ahal den gehien beharretara egokituz (bilerara joango direnen kopurua...) eta kopiak soberan egotea saihestuz.

- Dokumentuak bi aldeetatik inprimatuko dira, zuri-beltzean (kolorea erabiliko da, soilik, zuri-beltzean ulertu ezin denean), 2 orri alde bakoitzean (ulergarritasuna bermatzen bada), koadernatze minimoarekin eta plastikozko taparik gabe (birziklatzea errazteko).

Paperak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- %100 birziklatua (kontsumo ondorengo zuntzen edukia %65). Birziklatu gabeko papera soilik erabiliko da Din A4 edo Din A3 formatuan inprimatu ezin diren planoetarako, edo beste mota bateko papera behar duten

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
AYUNTAMIENTO DE IRUN SECRETARÍA

erabilera haietarako, merkatuan paper birziklatu kalitatezkorik ez badago. Kasu hauetan erabilitako paperek %30eko eguneko zuntzak eta/edo baso-ustiategi iraunkor zertifikatuetatik eratorritako birziklatuak eduki beharko dituzte (FSC, PEFC edo baliokidea).

- Klororik ez edukitzea (TCF).
- ISO 11475:2004 arauaren arabera, zuritasun maila %80koa edo handiagoa edukitzea.

Kontratuaren hasieran, erabiliko dituen birziklatutako edo birziklatu gabeko paperen dokumentazioa (izena, marka eta ingurumen ezaugarriak) aurkeztu beharko du esleipendunak, kontratatzaileak baimena eman dezan. Kontratuaren iraupenean aldaketarik egingo balitz, kontratatzaileari jakinarazi beharko zaio eta haren onespena eskatu.